## HITZAURREA

Esku artean duzun Eusko Folklore Urtekariaren 54. ale honek, irakurle, ez du unerik samurrena aukeratu argia ikusteko.Urteurren borobila ospatzeko bezperatan, ehun urte beteko baitira 1921ean on Jose Migel Barandiaranek proiektu bikain honi hasiera eman zionetik, *Anuario de Eusko Folklore* aldizkari zientifikoaren sorrerarekin, aurtengo udaberriaz geroztik bizitzen ari garen COVID-19ren pandemiak gure gizartean sortu duen egoerak ehun urte atzera eraman gaitu, 1918an hasitako gripe-epidemiak gurean izan zuen berragerpenaren garaietara hain justu. Euskal Herria inbaditu zuen astinduaren garaiak gogora ekartzeaz gain, sortutako egoerak zaildu egin digu urtekariaren ale hau osatzeko lana. Horregatik bada, gaur, inoiz baino gehiago, eskerrak eman behar dizkiegu liburuxka honen proiektua errealitate bihurtu dutenei; bai hemen jasotzen diren lanen egileei, bai, lanari ekin ondoren, uko egin behar izan diotenei, beren zeregin profesionaletan izandako aldaketengatik, ezinezkoa baitzitzaien eskuratutako epeak eta enkarguak betetzea.

Urtekariaren lehen bost liburukietan *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore*

## PRÓLOGO

Ciertamente, no podemos decir que este número 54 del Anuario de Eusko Folklore haya elegido el momento más dulce para ver la luz. En vísperas de la conmemoración de un extraordinario aniversario, pues se cumple cien años desde que en 1921 D. José Miguel de Barandiaran inaugurara este magnífico proyecto, con la creación de la revista científica Anuario de Eusko Folklore, la pandemia del COVID-19 que estamos viviendo desde la primavera de este año nos retrotrae cien años, justo a los tiempos de la epidemia gripal iniciada en 1918. Además de recordar los tiempos del azote que también entonces invadió Euskal Herria, la situación creada en manera alguna ha facilitado la labor de completar este número del Anuario. Por eso, hoy, más que nunca, tenemos que agradecer a quienes han hecho realidad el proyecto; tanto a los autores y las autoras de los trabajos que aquí se recogen como a quienes habiendo iniciado la tarea se han visto obligados a renunciar debido a los cambios surgidos en el desempeño de sus tareas profesionales y que les imposibilitaba cumplir con los plazos y encargos adquiridos.

En los cinco primeros volúmenes la publicación se denominó *Anuario de la*

deitu zen. Izenburu horrek, Barandiaranek 1921eko apirilean Gasteizko Seminarioan sortu zuen ikerketa taldeari egiten zion erreferentzia. Joan den mendearen 20ko hamarkadako lehen zenbaki haien aurkibideak berrikusita, ohikoa da bi ataletan banatuta egotea: bata lan etnografikoei buruzkoa (hein handi batean, on Jose Migelek berak sortutako *Laboratorio de Etnología y Eusko-Folklore* lantaldeak egindakoak) eta bestea historiaurreko arkeologia-lanei buruzkoa, Telesforo de Aranzadik, Enrique Egurenek eta berak egindako ekarpenekin, besteak beste. Halaber, 1988ko ekainean on Jose Migel Barandiaran eta Eusko Ikaskuntzak sortu zuten Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak bere helburu artean Barandiaranen bizitza, pentsamendua eta zientzia eta kulturari egindako ekarpena aztertzea, eta haren obra eremu guztietan zabaltzea; haren zientzia produkzio osoa biltzea, hala argitaratua nola argitaragabea, eta haren obraren edizio kritiko arretatsua egitea, eta on Jose Migel Barandiaranek abiatu eta gauzatu zuen ikerkuntza lana jarraitzea, bereziki historiaurre, arkeologia, antropologia eta etnografia alorretan, ikerketa programa eta beken bidez, bai eta ikastaro, mintegi, hitzaldi eta antzeko jardueren bidez, fundazioak berak sustaturiko ikerketen emaitzak argitaratzen dituela.

Hori guztia kontuan hartuta nahi izan dugu Urtekariaren 54.ale honen gai monografikoa Arkeologia izan dadin. Edonola ere, arkeologiaren ikerketa esparrua historiaurrearen azterketaren

*Sociedad de Eusko Folklore*, en referencia al grupo de investigación creado por Barandiaran en abril de 1921 en el Seminario de Vitoria. Repasando los índices de aquellos primeros números de los años 20 del siglo pasado, es frecuente hallar en ellos dos apartados: uno dedicado a estudios etnográficos, realizados en gran parte por miembros del *Laboratorio de Etnología y Eusko-Folklore*, creado por el propio D. José Miguel; y otro sobre trabajos arqueológicos prehistóricos, con aportaciones de Telesforo de Aranzadi, Enrique Eguren y el propio Barandiaran, entre otros. Asimismo, en junio de 1988, D. José Miguel de Barandiaran y Eusko Ikaskuntza crearon la Fundación José Miguel de Barandiaran para analizar la vida, el pensamiento y la contribución a la ciencia y la cultura de don José Miguel de Barandiaran y difundir su obra en todos los ámbitos; recopilar toda su producción científica, tanto editada como inédita, y realizar una cuidada edición crítica de su obra; y continuar la labor investigadora emprendida y llevada a cabo por D. José Miguel de Barandiaran, especialmente en los campos de la prehistoria, la arqueología, la antropología y la etnografía, mediante programas y becas de investigación, así como mediante cursos, seminarios, conferencias y actividades similares, publicando los resultados de las investigaciones promovidas por dicha fundación.

Teniendo en cuenta todo ello hemos querido que el tema monográfico de este Anuario número 54 sea la Arqueología. En cualquier caso, entendiendo el ámbi-

muga zurrunetatik haratago ulertuz. Bertan azaltzen den lehen artikuluaren egileek beraiek aitortzen duten legez, *"agian arkeologia izenak antzinako gauzei erreferentzia esplizitua egiten dielako, egia esan, denbora asko behar izan da diziplina honek muga kronologikorik ez duela onartzeko"*. Azken urteetan diziplina arkeologikoa izaten ari den eraldaketa kontzeptual horren defendatzaile ditugun **Agustin Azkarate Garai-Olaun** eta **Iñaki García Camino** ikerlariek agertzen digute nola metodo arkeologikoaren erabilerak Euskal Herriaren historiaren ezagutza sakonki aldatzea lortu duen, erromatarren inperioaren amaieratik Errenazimenduarekin hasitako modernitateraino doazen mila urteetan, bere **Erdi Aroko arkeologia Hego Euskal Herrian: balantze kritikoa** lanean.

Urtekariaren ale honetan jasotzen den bigarren lanean, historiaurreko arkeologiaren esparruan jada, **El estudio de las formas de vida de las sociedades neandertales en el yacimiento de Axlor (Dima, Bizkaia): las excavaciones de J.M. Barandiaran y el proyecto del siglo XXI** lanaren egileek, **Talía Lazuen Fernández** eta **Jesús González-Urquijo**k, Barandiaranek berak 1932an aurkitu eta, ondoren, 1967 eta 1974 urteen artean industu zuen Axlorreko aztarnategian egindako ikerketaren historia jorratzen dute hasteko. Artikuluaren bigarren zatian, ordea, 2000. urteaz geroztik Axlorren garatzen ari den proiektua aurkezten digute. Proiektu hori, esparru diziplinar berri

to de investigación de la arqueología más allá de los rígidos límites del estudio de la prehistoria. Como reconocen los propios autores del primer artículo que en este número se presenta, quizá porque el término "arqueología" hace referencia explícita a cosas antiguas, lo cierto es que se ha tardado mucho en reconocer que esta disciplina no tiene límites cronológicos. Los investigadores **Agustín Azkarate Garai-Olaun** e **Iñaki García Camino**, defensores de esta transformación conceptual que está experimentando la disciplina arqueológica en los últimos años, nos explican, en su artículo titulado **Erdi Aroko arkeologia Hego Euskal Herrian: balantze kritikoa**, cómo el uso del método arqueológico ha conseguido transformar profundamente el conocimiento de la historia de Euskal Herria, en los mil años que van desde el final del imperio romano hasta la modernidad iniciada con el Renacimiento.

En el segundo de los trabajos que se recogen en este número del Anuario, ya en el marco de la arqueología prehistórica, bajo el título de **El estudio de las formas de vida de las sociedades neandertales en el yacimiento de Axlor (Dima, Bizkaia): las excavaciones de J.M. Barandiaran y el proyecto del siglo XXI**, sus autores, **Talía Lazuen Fernández** y **Jesús González-Urquijo** abordan en una primera parte la historia de la investigación en el yacimiento de Axlor, descubierto en 1932 y después excavado por el propio Barandiaran entre los años 1967 y 1974, mientras que en la segunda parte del artículo nos presentan el proyec-

batean, gizarte neandertalen dinamika historikoak aztertzera bideratuta dago.

Arkeologiaren esparru berean jarraituz, eta on Jose Migel Barandiaranek egindako indusketen balioa nabarmentzeko lanarekin, egungo lanetan eta dokumentazio zaharraren azterketan lortutako informazioen argitan, **Alvaro Arrizabalaga Valbuena** eta **Maria Jose Iriarte-Chiapusso** ikerlariak, Barandiaranek 1956-1968 bitartean industu zuen, eta artikulu honen egileek 1996 eta 2018 artean zeregin horri ekin zioten, Lezetxikiko kobazuloan zentratzen dira. Hemen aurkezten diguten artikulua, **De ayer y de hoy. Documentación, salvaguarda digital y actualización de los trabajos arqueológicos de J.M. de Barandiarán en la cueva de Lezetxiki (Arrasate), a la luz de las excavaciones más recientes y la documentación original**, titulu berarekin Barandiaran Beka (Arkeologia, 2018) lortu zuen lanaren laburpen bat da.

Euskal Herriko arkeologiaren ekarpenak eta aurrerapenak balioan jartzerakoan, protagonista esanguratsu bezala agertzen zaizkigun norbanakoen izen-abizenak, nagusiki, gizonezkoenak direla gauza nabaria da. Urtekariaren 54. ale honetan arkeologiari eskainitako atal hau ikuspegi desberdin eta berritzaile batetik osatzera datorren **Idoia Areizaga-Llorente** eta **Ainhoa Aranburu-Mendizabal**en lanaren helburua, emakume arkeologoen ekarpena aztertu eta azaleratzeaz gain, generoaren arkeologiak izan duen eboluzioa aztert-

to que se viene desarrollando en Axlor desde el año 2000. Este proyecto, en un nuevo marco disciplinar, está orientado a analizar las dinámicas históricas de las sociedades neandertales.

Continuando en el mismo ámbito de la arqueología y con la tarea de la puesta en valor de antiguas excavaciones realizadas por D. Jose Miguel de Barandiaran a la luz de las informaciones obtenidas en el curso de trabajos actuales y del análisis de la documentación antigua, **Alvaro Arrizabalaga Valbuena** y **María José Iriarte-Chiapusso** se centran en la cueva de Lezetxiki, excavada en primera instancia por J.M. de Barandiarán entre 1956-1968, tarea ésta que los autores retomaron entre 1996 y 2018. El artículo que aquí presentan, **De ayer y de hoy. Documentación, salvaguarda digital y actualización de los trabajos arqueológicos de J.M. de Barandiarán en la cueva de Lezetxiki (Arrasate), a la luz de las excavaciones más recientes y la documentación original**, es un breve resumen del trabajo que con el mismo título obtuvo la Beca Barandiaran, edición de Arqueología, en 2018.

A la hora de poner en valor las aportaciones y avances de la arqueología del País Vasco, es evidente que los nombres y apellidos de los individuos que se nos presentan como protagonistas significativos pertenecen, principalmente, a hombres. El objetivo del trabajo de **Idoia Areizaga-Llorente** y **Ainhoa Aranburu-Mendizabal**, que viene a completar este número dedicado a la arqueología desde

zea eta euskal emakume arkeologoek beraien lan baldintzei buruz zein iritzi duten jasotzea da, **Euskal Herriko arkeologiaz eta emakume arkeologoez** izenburupean aurkezten diguten honetan.

Lankidetzen atalean bi ekarpen ditugu. Lehenengoan, **José Antonio Perales Díaz**ek, **Rituales festivos transfronterizos en el País Vasco** artikuluan, Barandiaran beka (Antropologia-Etnografia, 2019) eskuratu zuen izenburu bereko ikerketa zabalago baten laburpena eskaintzen digu. Bertan, mugaren alde batean eta bestean bizi diren pertsonen parte-hartzea ezaugarri duten jai-multzo bat jasotzen eta aztertzen da. Bigarren artikuluan, **Rafael José Adalid Rodríguez**ek Euskadiko sorginaren eta Galiziako meigaren arteko balizko harremanak aztertzen ditu, **Entre la sorgin y la meiga. Relaciones y paralelismos culturales** lanean: haien atribuzioak aztertuz, bi herrialdeen artean partekatutako kultura-kategorien arteko paralelismoak ezartzen saiatzen da, horiek espazioan are urrunago dauden beste leku batzuetan egindako ondare-azterketetan ere ikus daitezkeela azpimarratuz.

Azkenik, 2020. urtea itxi ahal izateko, bi pertsona gogoratu behar genituen, duela gutxi hil diren eta beren bizitzan zehar Euskal Herriko ikerketa etnografiko eta antropologikoari aparteko ekarpena egin dioten bi emakume. Hauek dira: **Gurutzi Arregi Azpeitia** (Lemoa, Bizkia, 1936.11.12 – Duran-

una perspectiva diferente e innovadora con el artículo, **Euskal Herriko arkeologiaz eta emakume arkeologoez**, además de revelar la aportación de las mujeres arqueólogas, es el de analizar la evolución de la arqueología del género y recoger la opinión de las mujeres arqueólogas vascas sobre sus condiciones de trabajo.

En el apartado de colaboraciones hemos contado con dos aportaciones. En el primero de los trabajos, **José Antonio Perales Díaz**, nos ofrece un resumen de la investigación **Rituales festivos transfronterizos en el País Vasco** (Beca Barandiaran, Antropologia-Etnografía, 2019) en la que recoge y analiza un conjunto de fiestas caracterizadas por la participación de personas residentes en uno y otro lado de la muga. En la segunda de las aportaciones, **Entre la sorgin y la meiga. Relaciones y paralelismos culturales, Rafael José Adalid Rodríguez** analiza las posibles relaciones entre la *sorgin* de Euskadi y la *meiga* de Galicia a través del análisis de sus atribuciones, tratando de establecer paralelismos sobre características culturales compartidas entre ambas nacionalidades y que son visibles también en diversos análisis patrimoniales realizados en otros lugares aún más distantes en el espacio.

Finalmente, no podíamos cerrar este año 2020 sin un recordatorio para dos personas, dos mujeres, recientemente fallecidas y que a lo largo de sus vidas han realizado una aportación extraordinaria a la investigación etnográfica y antropológica de Euskal Herria. Se trata

go, Bizkaia, 2020.05.06) eta **Selma Huxley** (Londres, Erresuma Batua, 1927.03.08 — Chichester, Erresuma Batua, 2020.05.03). **Etniker Euskalerria**k eta **Jerardo Elortza Egaña**k, hurrenez hurren, merezitako oroitzapena eskaintzen diete *In Memorian* atalean. Eusko Folklore Urtekariatik, harekin bat egiten dugu zintzoki.

de **Gurutzi Arregi Azpeitia** (Lemoa, Bizkaia, 1936.11.12—Durango, Bizkaia, 2020.05.06) y **Selma Huxley** (Londres, Reino Unido, 1927.03.08—Chichester, Reino Unido, 2020.05.03). **Etniker Euskalerria** y **Jerardo Elortza Egaña,** respectivamente, les dedican un merecido recuerdo en el apartado *In Memorian*. Desde Anuario de Eusko Folklore nos unimos sinceramente al mismo.

Eskerrik asko denoi.

**Abel Ariznabarreta Zubero**
*Eusko Folklore Urtekariko zuzendaria*
*Director del Anuario de Eusko Folklore*